

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 50/2016 Foru Dekretua, uztailaren 12koa, onartzen duena egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga dirutan ordaintzea, efektu tinbredunak erabiliz egin orde

Baimena ematea Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeko, efektu tinbredunak erabili orde.

Urriaren 1eko 692/1991 Foru Dekretuak baimena eman zuen Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga —zerga horri atxikita dauden ordaindukoak eta ordainagiriak zergapetzen dituen— eskudirutan ordaintzeko, efektu tinbredunak erabili orde, baldin ordainketa ordainagiri eta ordaindukoen hartzaile den banku, aurrezki kutxa edo kreditu entitate baten bitartez egiten bada.

Foru dekretu honek indargabetu egiten du aurreko lerroaldean aipatutako foru dekretua, eta baimena ematen du Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeko zerga horri atxikitako txekeak eta beste merkataritza agiri batzuk direnean ere, entitate laguntzailearen baten bitartez negoziatzekoak badira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra

1. Baimentzen da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren, ordainagiriak, ordaindukoak, txekeak eta beste merkataritzako agiri batzuk zergapetzen dituenaren, Egintza Juridiko Dokumentatuen modalitateko ordainketak eskudirutan egitea, efektu tinbredunak erabili orde, baldin eta ordainketa hori zerga bilketan laguntzeko entitate baimenduren baten bitartez egiten bada, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletaren Arautegi Orokorren (maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Arau bidez onartua) 113. artikulua arabera, eta, era berean, entitate hori zergaren ordainketaren erantzule solidarioa bada, martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 59. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz.

2. Entitate interesdunek Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzari jakinarazi behar diete zein egunetatik aurrera hasiko diren foru dekretu honen bidez baimendutakoa gauzatzen. Egun horrek bat etorri behar du, nahitaez, hiruhileko naturalaren hasierarekin, eta baimena aplikagarri izango zaie aipatutako entitateek egun horretatik aurrera onartuko dituzten zergari atxikitako ordaindukoak, ordainagiriei, txekeei eta beste merkataritzako agiri batzuei.

3. Aipatutako baimena erabiltzea erabakitzen duten entitate laguntzaileek, negoziatzeko edo kobratzeko onartzen duten ordainagiri, ordainduko, txeke edo beste merkataritzako agiri bakoitzerako, kalkulatu beharko dute bakoitzari dagokion karga, eta zenbatekoa zordunduko dio laguntzaileari, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaindu beharragatik egindako zordunketaren nahiko xehetasun emango dio.

4. Idatz zati honetan araututako eskudirutan ordainketak egiteko baimena aplikatuko zaien ordainagiritan, ordaindukoetan, txeeetan eta bestelako merkataritzako agiritan negoziatzeko onartu dituen entitate laguntzailearen izenak agertu behar du ezinbestean; edo, bestela, entitatea identifikatzea ahalbidetuko duen gakoa, zeina Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari jakinarazi beharko baitzaio, aurrerago aurreikusitako jakinarazte izapidea betetzeko.

5. Administrazio eskudunak beharrezko diren jardunak egingo ditu baimena behar bezala erabiltzen dela egiaztatzeko.

6. Foru dekretu honetan xedatutakoa ez zaio aplikagarri izango 192.323,87 eurotik gorako kanbio letren gaindikina zergapetzen duen Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu bidez onartuko dira ereduak, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, efektu tinbredunak erabili ordez, eskudirutan ordaintzeko baimena erabiliko duten entitate laguntzaileek aurkeztu beharreko urteko aitorten laburpenari eta aitorten-likidazioari dagozkionak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Urriaren 1eko 692/1991 Foru Aginduan ezarritakoaren babespean foru dekretu hau indarrean sartu aurretik ere ordainagiri eta ordaindukoetarako emandako baimena erabili izan duten entitateek jakinarazpen bakarra egin behar dute, hain zuzen artikuluko bakarraren bi paragrafoan aipatutakoa, baimen hori txeke eta merkataritzako agiritara ere zabaldu nahi badute. Foru dekretu hau indarrean sartzeko egunetik aurrera, ordainagiri eta ordaindukoetarako baimena erabiltzen jarraitu ahal izango dute inolako jakinarazpenik egin beharrik gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean sartzeko denean, indargabetuta geratuko da urriaren 1eko 692/1991 Dekretua, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, efektu tinbredunak erabili ordez, eskudirutan ordaintzea baimentzen duena, bai eta 1996ko martxoaren 12ko 32/1996 Dekretuaren, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren autolikidazio ereduak onartzen dituenaren, 9., 10. eta 14. artikulukoak (azken artikuluko horretan 610 ereduaren prezioa baino ez) eta haien edukia ere.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Gasteiz, 2016ko uztailaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA